

Gora egin du nekazaritza produktiboa eta jasangarria egiten den Euskal AEko nekazaritza-azaleraren proportzioak


Adierazle horren bilakaera bat dator garapen jasangarrirako bigarren helburuarekin, zeinak nekazaritza jasangarria sustatzen baitu, besteak beste

Eustatek eutsi egiten dio hartu duen konpromisoari; alegia, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan sartutako 169 xedeak eta garapen jasangarrirako 17 helburuak Euskal AEn zenbateraino bete diren kuantifikatzea ahalbidetzen duten adierazle estatistikoaren multzoa etengabe zabaltzeko eta bereizteko konpromisoari.

Oraingoan **56** estatistika-adierazle berri sartu dira Eustaten [Euskal AEko Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleak zabaltzeko plataforman](#). Horien artean, **44** adierazle autonomia-erkidegoen artean harmonizatutako metodologia bati jarraituz zehaztu dira, eta, beraz, bermatuta dago haien erabateko eta zuzeneko konparagarritasuna. Gainerako adierazle berriak geuk eginak dira, Nazio Batuen gomendioei jarraituz, hau da, ahalik eta adierazle global gehienek berri emanez, intereseko eremu geografiko bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta. **16** adierazle, gainera, udalerraren arabera bereizita eskaintzen dira.

Helmuga 2.4. 2030. urterako, elikagaien ekoizpen-sistemen jasangarritasuna ziurtatzea eta produktibitatea eta ekoizpena areagotzen duten, ekosistemei eusten laguntzen duten, klima-aldaketara, muturreko fenomeno meteorologikoetara, lehorte, uholde eta beste hondamendi batzuetara egokitzeko gaitasuna indartzen duten eta lurrazaren kalitatea pixkanaka hobetzen duten nekazaritza-praktika indartsuak aplikatzea

Adierazle 2.4.1. Nekazaritza emankor eta jasangarria lantzen duten laborantza-lurren azaleraren proportzioa




2030 AGENDA KO GARAPEN JASANGARRIAREN ADIERAZLEAK

Gainera, Eustaten zabalkunde-plataforman lehenago informatutako **2** adierazle Euskal AEko udalerrri bakoitzerako bereizi dira. Horietako bat **Nekazaritza produktiboa eta jasangarria egiten den nekazaritza-azaleraren proportzioa** da. Euskal AE osoan, 2015ean, % 1,09 zen; 2021ean, berriz, % 2,91 izan da, eta azken hamarkadan hazkunde jarraitua izan du.

Eustaten plataforman lehen aldiz sartu diren adierazleen artean daude, adibidez, **Nekazaritza-ustiategi ekologikoen proportzioa** eta **Abeltzaintza-ustiategi ekologikoen proportzioa**. Adierazle horiek informazio garrantzitsua ematen dute Nazio Batuen 2.4.1 adierazleari buruz, baita udalerrri-mailan ere. Biek ere Euskal AE osorako joera positibo jarraitua erakusten dute aztertutako aldian.

Nekazaritza-ustiategi ekologikoen proportzioa guztizkoaren % 5,59 zen 2015ean; 2022an, berriz, % 9,95 da. Abeltzaintza-ustiategi ekologikoen ehunekoa guztizkoaren % 0,72 izatetik % 2,49 izatera igaro da aldi horretan bertan.

Eustatek lanean jarraitzen du adierazle berriak etengabe gehitzeko [Euskal AEko Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleak zabaltzeko plataforman](#); batetik, dagoeneko argitaratuta dauden estatistika-adierazleen desagregazioak eskaintzeko, eta, bestetik, orain arte bete ez diren xedeen berri emango duten adierazle berriak sartzeko. Histograma honetan adierazi da gaur egun zenbat adierazle ematen duten informazioa garapen jasangarrirako 17 helburuetako bakoitzari buruz. Eustaten lehentasuna da gutxien informatuta dauden garapen jasangarrirako helburuetan adierazle berriak sartzea, bai eta Euskal AE mailan eskuragarri dauden adierazleen desagregazio geografikoa ere.



Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62